



HIGA! 2023: Hizkuntza Gutxietako Hiztun Gazteen 4. Topaketa



Uzt. 17 - Uzt. 21 2023

Kod. G13-23

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Workshop

Data

Uzt. 17 - Uzt. 21 2023

Kokalekua

Montehermoso kulturunea

Hizkuntzak

Euskara Ingelesa

Balio akademikoa

50 ordu

Webgunea

<https://higagasteiz.wixsite.com/higa/>

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Alde batetik, hizkuntza gutxituen etorkizunerako gakoa izango da belaunaldi berriek biziberritu nahi izatea. Bestalde, hizkuntza-komunitate ezberdinen artean elkarlanean arituz, esperientzia eta ezagutzak partekatu eta lankidetzaren sareak osatu daitezke. Hizkuntzen biziberritzean trebatu eta aktibatzen modu asko daude, adibidez, gazteek gazteentzat antolatutako lau eguneko topaketa bat.

Helburuak

Gasteizko eta Euskal Herriko euskaldun gazteei munduko hizkuntza aktibistak ezagutzeko eta etorkizunerako harremanak eratzeko aukera eskaintzea.

Mundu osoko komunitate ezberdinen arteko hizkuntza-lankidetzaren sustatzea, hizkuntzen biziberritzerako bide gisa.

Gazteria aktibatu eta trebatzeko espazioa, arlo akademikoa (UPV/EHUko Uda Ikastaroa da) beste arlo batzuekin uztartuz.

Antolakuntza



Lankidetzak





Zuzendaritza



Beñat Garaio Mendizabal

Bizierri IGB, Koordinatzailea

Cum Laude doktorea EHUn. Bere ibilbidea hizkuntza gutxituen biziberritzearen eta soziolinguistikaren ikerketan (60 aurkezpen eta 60 argitalpen zientifiko inguru ditu) eta bi esparru horien sentsibilizazioa eta sustapen ekintzak antolatzen oinarritu du (HIGA, adibidez). Bost ikerketa sari irabazi ditu, azkenak Eusko Ikaskuntza Laboral Kutxa Gaztea Saria eta Koldo Mitxelena euskarazko tesi onenaren saria.

Irakasleak



lorea agirre agirre

Jakin, Zuzendaria

Lorea Agirre Dorronsoro (Beasain, 1968) Informazio Zientzietan lizentziatua da eta Antropologia Kulturean master duna. Lanbidez, kazetaria da, Argia, Euskaldunon Egunkaria eta Berria-n aritutakoa urte luzez, eta egun, Jakin aldizkariko zuzendaria da. Irakasle ere izan da Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultatean eta baita EHUn ere. Bere ikerketa gai nagusiak hizkuntza, kultura eta komunitatearen arteko loturak dira, betiere genero ikasketen markoan. 'Trikuia esnatu da. Euskaratik feminismora eta feminismitik euskarara' (Susa, 2019) da bere azken liburua, Idurre Eskisabel Larrañagarekin lau eskutara idatzia. 'Gezurra ari du. Egunkariaren itxieraren kronika' eta Rosa Luxemburg eta Joxemi Zumalaberen biografia bana ere argitaratuak ditu



Chaimae Benlemchraf



Silvia Cebolla Civil

Lengua aragonesa



June Fernández Casete

June Fernandez kazetari bizkaitarra da. Pikara Magazine hedabide feministaren sortzailea; hamar urtez koordinatu du. Egun, askotariko komunikabideetan idazten du ikuspegi feminista intersektionalarekin; bereziki, Pikaran eta ARGIA aldizkarian. Euskararen erabilera inklusiboari buruzko ikastaroak gidatu ditu, UPV/EHUn, Eusko Jaurlaritzan eta IVAPen. Zinegoaken "Nola esan/izan bollera euskaraz" egitasmoa koordinatzen du, Amaia Alvarez Uriarekin batera. Histeria Kolektiboaren "Amatasun bolloak" proiektuan eta Pikarak sortutako Berbalagun feminista taldean ere parte hartzen du. Urdin elektrikoa proiektua jarri du martxan Bilboko BIRA kultur gunean: euskal kulturako feministekin solasaldia eta emanaldiak. 2018. urteko Euskaraldian Bilboko Hamaikakoan parte hartu zuen, eta esperientzia horrek eragin handia izan du bere ibilbide linguistikoan. Hainbat elkarte feminista, lesbianista eta antiarrazistetako kide izan da. Egun, Larrabetzun bizi da eta herri horretako Zutunik! talde feministan militatzen du.



Beñat Jusué



Tymoteusz Krol Kaiser

Association "Wilamowianie"



Hector Josue Martinez Flores

Timumachtikan Nawat



Mariona Miret Giribet

Mariona Miret Revitalització lingüística



Mamadou Moussa



Ane Murua Mugica



Gabrièu Pelisson

Parpalhon Blau





Ayoub Zahraoui



Gemma Sanginés Saiz

Psikologoa, Salamancako Unibertsitatean litzentiatua. Kirol psikologian (UNED) eta Jokaeraren aldaketan (CENTRO KANTOR, Salamanca) masterrak. Ikertzeko nahikotasuna (Universidad de Salamanca) Hiztun gutxituen jokaeran aditua. Hizkuntza Asertibitatean lan egiten du 2003. urtetik. TELP (Taller d'espai lingüístic personal) sortzailetako bat. Irten Hizkuntzaren armairutik (2015) liburua idatzi du, Ferran Suay-rekin batera.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2023-07-17 ARTE
Onartutako gonbidatuak	0 EUR
Orokorra	50,00 EUR

Kokalekua

Montehermoso kulturunea

Helbidea: Frai Zacarias Martinez, 2 01001 Gasteiz

Araba